BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

2394

AGINDUA, 2018ko apirilaren 17koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzari eskuordetzen baitzaio Segurtasun Sailaren menpeko administrazio-zentroak goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz eta gas naturalez hornitzeko kontratazioa.

Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzari dagokio kudeaketa bateratuaren arloan eta kudeaketa bateratuko deklaratutako higiezinen arloan kontratazioa egitea, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren kontratazio-araubidea onartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 15. eta 17. artikuluetan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuko 19.d) artikuluan.

Bestalde, 116/2016 Dekretuak 20. artikuluan ezartzen duenez, kontratazio zentralizatukotzat deklaratu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren erakundeek orokorrean eta ezaugarri nagusi bertsuekin kontratatzen dituzten hornidura, obra eta zerbitzuak.

Badira urte batzuk modu zentralizatuan kontratatzen dela goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoaren hornidura eta gas naturalaren hornidura kudeaketa bateratuko eraikinetan, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzaren eskumeneko sare korporatiboaren telekomunikazio-zerbitzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gainerako sailei eta haren erakunde autonomo eta sozietate publikoei atxikitako eraikinetan eta, sektore publikokoak izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren parte ez diren beste zenbait erakunderi atxikitakoetan. Hartara, zerbitzuak hobeto kudeatzeaz gainera, gastu publikoa arrazionalizatu egiten da.

Egun, kontuan hartuta aurrerago dekretu bat onartuko dela energia elektrikoaren eta gasaren horniduren kontratazioa modu zentralizatuan erostea xedatuko duena, kontratazioa modu zentralizatuan egiteko bide egokiena 40/2015 Legearen 9. artikuluan eskumenak eskuordetzan emateko ezarritakoa da (urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena). Honela dio artikulu horrek:

«1.– Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoak ez izan,...».

Horiek horrela, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuaren 4.2 artikuluak ematen dizkidan ahalmenen arabera, hau

EBATZI DUT:

I.– Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordearen esku uztea I. eta II. eranskinetan adierazten diren eraikinak goi- eta behe-tentsioko energia elektrikoz eta gas naturalez hornitzeko kontratazioaren eskumena 2019rako. Eskuordetze hori luzatu egingo da harik eta erosketa zentralizatuko prozeduraren ondoriozko kontratua indarrean jarri arte (kontratu hori erosketa zentralizatua deklaratzeko aurrerago onartuko den dekretuaren bidez gauzatuko da).

II.– Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako arlo hauetara zabalduko da eskuordetzea, betiere kontratuari aplikatzekoak badira:

– Kontratua prestatzea (II. liburua, I. titulua, I. kapitulua, 1. atala).

– Kontratua esleitzea (II. liburua, I. titulua, I. kapitulua, 2. atala).

– Administrazioren prerrogatibak: aldatzea, azkentzea, lagapena eta azpikontratazioa (II. liburua, I. titulua, I. kapitulua, 3. atala).

– Kontratua formalizatzea (II. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

Eta, bereziki, II. liburuan, II. tituluko IV. kapituluan, hornidura-kontratuari buruz aurreikusitakoa.

III.– Eskumena ematen duen organoaren baitan jarraituko dute kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenek, eta, bereziki, egindako zerbitzuen betetzeari onespena emateko eta haien ordainketa agintzeko eskumenek.

IV.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eskuordetze hau, eta argitara eman eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 17a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

I. ERANSKINA

ENERGIA ELEKTRIKOAREN ESKUMENAREN ESKUORDETZEAK ERAIKIN HAUEK HARTUKO DITU BARNEAN

	GOI-TENTSIOA			
Zk.	Zentroa	Posta-helbidea	Kokalekua	Lurraldea
1	Erandioko egoitza nagusia	Larrauri Mendotxe bidea, 18	Erandio	Bizkaia
2	Oiartzungo zentrala	Igerobi bidea, 25	Oiartzun	Gipuzkoa
3	Iurretako basea	Iurreta, 14	Iurreta	Bizkaia
4	Berroziko basea	Berrozi, 3	Bernedo	Araba
5	Deustuko ertzain-etxea	Agirre Lehendakaria, 44-1	Bilbao (Deusto)	Bizkaia
6	Gasteizko ertzain-etxea	Forondako atea, z/g	Gasteiz	Araba
7	Basauriko ertzain-etxea	Uribarri, 1	Basauri	Bizkaia
8	Begarako ertzain-etxea	Ibargarai hiribidea, 56	Bergara	Gipuzkoa
9	Hernaniko ertzain-etxea	Latxunbe berri, 34-2	Hernani	Gipuzkoa
10	Irungo ertzain-etxea	Bidasoa, 13	Irun	Gipuzkoa
11	Laudioko ertzain-etxea	Zumalakarregi, 66	Laudio	Araba
12	Muskizko ertzain-etxea	Zendeja, 11	Muskiz (San Juan)	Bizkaia
13	Ondarretako ertzain-etxea	Kristina infanta, 28	Donostia (Ondarreta)	Gipuzkoa
14	Ondarroako ertzain-etxea	Zaldupe, 3	Ondarroa	Bizkaia
15	Errenteriako ertzain-etxea	Santa Klara plaza, 3	Errenteria	Gipuzkoa
16	Iradier eraikina	N-140 errep., 356. km	Gasteiz	Araba
17	Ertzaintzaren Akademia	N-140 errep., 356. km	Gasteiz	Araba
18	Trafikoa Kudeatzeko Zentroaren Txurdinagako egoitza	Ornilla doktorea, 1-1	Bilbao (Txurdinaga)	Bizkaia
19	Abetxukoko mezu aldakorretarako panela	N-1, 352. km	Gasteiz (Abetxuko)	Araba
20	Ribabellosako mezu aldakorretarako panela	-1 autobidea, 7,6 km	Erribera Beitia (Ribabellosa)	Araba
21	Zambranako mezu aldakorretarako panela	AP-68, 75. km	Zambrana	Araba

	BEHE-TENTSIOA			
Zk.	Zentroa	Posta-helbidea	Kokalekua	Lurraldea
1	Azkoitiko ertzain-etxea	Beidazar, 1	Azkoitia	Gipuzkoa
2	Balmasedako ertzain-etxea	Virgen de Gracia, 2 bajo	Balmaseda	Bizkaia
3	Beasaingo ertzain-etxea	Senpere, 8	Beasain	Gipuzkoa
4	Durangoko ertzain-etxea	Kurutziaga, 25	Durango	Bizkaia
5	Eibarko ertzain-etxea	Otaola hiribidea, 3	Eibar	Gipuzkoa
6	Galdakaoko ertzain-etxea	Zabalea, 23-25	Galdakao	Bizkaia
7	Gernikako ertzain-etxea	Carlos Gangoiti, 20	Gernika	Bizkaia
8	Getxoko ertzain-etxea	Aiboa, 13	Getxo	Bizkaia
9	Laguardiako ertzain-etxea	San Raimundo hiribidea, 1-1	Laguardia	Araba
10	Sestaoko ertzain-etxea	Andres Jauregibeitia, 4	Sestao	Bizkaia
11	Tolosako ertzain-etxea	Santa Klara, 2-B	Tolosa	Gipuzkoa

	BEHE-TENTSIOA			
Zk.	Zentroa	Posta-helbidea	Kokalekua	Lurraldea
1	Zarauzko ertzain-etxea	Gipuzkoa, 46	Zarautz	Gipuzkoa
13	Zumarragako ertzain-etxea	Geltokien enparantza, 5	Zumarraga	Gipuzkoa
14	Aguraingo HABa	Foru kalea, 11-bis	Agurain	Araba
15	Amarako HABa	Pedro Egaña, 9	Donostia (Amara)	Gipuzkoa
16	Arrasateko HABa	Gipuzkoa etorbidea, 2	Arrasate	Gipuzkoa
17	Barakaldoko HABa	Juan Sebastian Elkano, 22	Barakaldo	Bizkaia
18	Bermeoko HABa	Doloriaga, 25	Bermeo	Bizkaia
19	Erandioko HABa	Gernikako arbola, 1	Erandio	Bizkaia
20	Lekeitioko HABa	Pascual Abaroa etorbidea, 47	Lekeitio.	Bizkaia
21	M.ª Díaz de Haro 6-8 HABa	M.ª Díaz de Haro kalea 6-8	Bilbao	Bizkaia
22	Olagibeleko HABa	Olagibel kalea, 34	Gasteiz	Araba
23	Plentziako HABa	Astillero plaza, 1	Plentzia	Bizkaia
24	Portugaleteko HABa	Correos, 37	Portugalete	Bizkaia
25	Santurtziko HABa	Juan José de la Quintana, 2 B	Santurtzi	Bizkaia
26	Zabalburuko HABa	Pedro Martínez Artola, 2	Bilbao (Zabalburu)	Bizkaia
27	Maestuko Meteorologia-estazioa	San Pedro, 8-1	Maestu (Roitegui)	Araba
28	On Diego Lopez Haroko kale nagusia, 81, 1. solairua	On Diego Lopez Haroko kale nagusia, 81, 1	Bilbao	Bizkaia
29	Bizkaiko Trafiko Ordezkaritza	M.ª Díaz de Haro	Bilbao	Bizkaia
30	Berrizko trafikoko ekipamendua eta panela	Okango, 202	Berriz	Bizkaia
31	Elgoibarko trafikoko ekipamendua eta panela	A-8 autobidea, 6,5 km behea	Elgoibar	Gipuzkoa
32	Irurako trafikoko ekipamendua eta panela	N-1, 440,5 km.	Irura.	Gipuzkoa
33	Mendaroko trafikoko ekipamendua eta panela	A-8, km. 62,5 - Behea	Mendaro	Gipuzkoa
34	Oiartzungo trafikoko ekipamendua eta panela	A-8, 1,0. km	Oiartzun	Gipuzkoa
35	Olaberriko trafikoko ekipamendua eta panela	N-1, 416,5 km	Olaberria	Gipuzkoa
36	Ordiziako trafikoko ekipamendua eta panela	N-1; 42,1 km	Ordizia.	Gipuzkoa
37	Trapagako trafikoko ekipamendua eta panela	A-8 125,5 km, behea, 1	Trapaga	Bizkaia
38	Usurbilgo trafikoko ekipamendua eta panela	Aginaga Auzoa, 66-prox., behea	Usurbil	Gipuzkoa
39	Andoaingo mezu aldakorretarako panela	Sorabilla auzoa, 230-prox	Andoain	Gipuzkoa
40	Boroako mezu aldakorretarako panela	A.8, 125,5 km, behea, 1	Amorebieta-Etxano	Bizkaia
41	Galdakao-Urgoitiko mezu aldakorretarako panela	Bizkaia, 38-1	Galdakao	Bizkaia

II. ERANSKINA

GAS NATURALAREN ESKUMENAREN ESKUORDETZEAK ERAIKIN HAUEK HARTUKO DITU BARNEAN

Zk.	Zentroa	Posta-helbidea	Kokalekua	Lurraldea
1	Gasteizko ertzain-etxea	Forondako atea, z/g	Gasteiz	Araba
2	Galdakaoko ertzain-etxea	Zabalea, 25	Galdakao	Bizkaia
3	Iurretako basea	Mallabiena industrialdea	Iurreta	Bizkaia
4	Gernikako ertzain-etxea	Don Tello, 40	Gernika	Bizkaia
5	Erandioko egoitza nagusia	Larrauri Mendotxe bidea, 18	Erandio	Bizkaia
6	Durangoko ertzain-etxea	Durango	Kurutziaga, 25	Bizkaia
7	Trafikoa Kudeatzeko Zentroaren Txurdinagako egoitza	Ornilla doktorea, 1-1	Bilbao (Txurdinaga)	Bizkaia
8	Zumarragako ertzain-etxea	Geltokien enparantza, 5	Zumarraga	Gipuzkoa
9	Zarauzko ertzain-etxea	Gipuzkoa, 46	Zarautz	Gipuzkoa
10	Tolosako ertzain-etxea	Santa Klara, 2-B	Tolosa	Gipuzkoa
11	Begarako ertzain-etxea	Ibargarai hiribidea, 56	Bergara	Gipuzkoa
12	Oiartzungo zentrala	Igerobi bidea, 25	Oiartzun	Gipuzkoa
13	Eibarko ertzain-etxea	Otaola hiribidea, 3	Eibar	Gipuzkoa